26. BEHIN BETIKO BERMEA ITZULTZEA ETA EZERETZTEA

26. DEVOLUCIÓN Y CANCELACIÓN DE LA GARANTÍA DEFINITIVA

1. Kontratuaren likidazioa onetsi ondoren, behin betiko bermearen gainean gauzatu beharreko erantzukizunik ez badago, eta karatulako **25. atalean** zehaztutako berme epea igaro bada, behin betiko bermea itzultzeko erabakia hartuko da.

1. Aprobada la liquidación del contrato, si no resultasen responsabilidades que hayan de ejercitarse sobre la garantía definitiva y transcurrido el plazo de garantía determinado en el **apartado 25** de la carátula, se dictará acuerdo de devolución de aquélla.

V. TITULUA. KONTRATUAREN LIZITAZIOA

TÍTULO V. LICITACIÓN DEL CONTRATO

I. KAPITULUA. KONTRATUAREN PRESTAKUNTZA

CAPÍTULO I. PREPARACIÓN DEL CONTRATO

27. DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

27. TRATAMIENTO DE DATOS PERSONALES

1. Karatulako **17 atalean** adierazten da kontratua gau-zatzeak kontratistak datu pertsonalak tratatzea dakarren ala ez.

1. En el **apartado 17** de la carátula se indica si la ejecución del contrato implica o no el tratamiento de datos personales por parte del contratista.

2. Kontratua gauzatzeak berekin badakar kontratistak, tratamenduaren arduradunaren kontura, datu pertsonalak tratatzea, kontratistak datuak babesteari buruzko estatuko eta Europar Batasuneko araudia bete beharko du beti. Betebehar hori kontratua gauzatzeko baldintza berezia izango da, baita funtsezko kontratu-betebeharra ere, SPKLren 211.1.f) artikuluaren ondorioetarako.

2. Cuando la ejecución del contrato implique el tratamiento de datos personales por parte del contratista y por cuenta del responsable del tratamiento, la obligación del contratista de someterse en todo caso a la normativa nacional y de la Unión Europea en materia de protección de datos es una condición especial de ejecución del contrato y tiene el carácter de obligación contractual esencial a los efectos del artículo 211.1.f) de la LCSP.

3. Datu pertsonalak lagatzearen helburua karatulako **17 atalean** adierazitakoa izango da.

3. La finalidad para la cual se cederán dichos datos, en su caso, será la establecida en el **apartado 17** de la carátula.

4. Kontratua formalizatu aurretik, enpresa adjudikaziodunak deklarazio bat aurkeztu beharko du, zerbitzariak non kokatuko diren eta horiei lotutako zerbitzuak nondik emango diren adierazteko, agiri honen 43.1.M klausulan xedatutakoaren arabera. Betebehar hori funtsezko kontratu- betebeharra izango da SPKLren 211.1.f) artikuluaren ondorioetarako.

4. Antes de la formalización del contrato, la empresa adjudicataria deberá presentar una declaración en la que ponga de manifiesto dónde van a estar ubicados los servidores y desde dónde se van a prestar los servicios asociados a los mismos, de conformidad con lo estipulado en la cláusula 43.1.M de este pliego. Esta obligación tiene carácter de obligación contractual esencial a los efectos del artículo 211.1.f) de la LCSP.

5. Era berean, agiri honen 47.12 klausulan xedatutakoaren arabera, enpresa adjudikaziodunak nahitaez jakinarazi beharko du kontratuaren iraunaldian zehar aurreko lerrokadan aipatutako deklarazioan emandako informazioa aldatzen bada. Betebehar hori funtsezko kontratu-betebeharra izango da SPKLren 211.1.f) artikuluaren ondorioetarako.

5. Asimismo, según lo estipulado en la cláusula 47.11 de este pliego, la empresa adjudicataria tiene la obligación de comunicar cualquier cambio que se produzca, a lo largo de la vida del contrato, de la información facilitada en la declaración referida en el párrafo anterior. Esta obligación también tiene carácter de obligación contractual esencial a los efectos del artículo 211.1.f) de la LCSP.

6. Kontratazioak kontratistari izaera pertsonaleko datuak eskuratzea badakarkio, eta datu horien tratamenduaren erantzulea erakunde kontratatzailea bada, kontratista datu pertsonalen tratamenduko arduraduna izango da.

6. Para el caso de que la contratación implique el acceso del contratista a datos de carácter personal de cuyo tratamiento sea responsable la entidad contratante, aquel tendrá la consideración de encargado del tratamiento.

7. Agiri honetako 35.1.A.1. klausulan adierazten den bezala, lizitatzaileek beren eskaintzan adierazi beharko dute zerbitzariak edo zerbitzari horiei lotutako zerbitzuak azpikontratatzeko asmoa duten ala ez, kontratua gauzatzeko ardura emango zaien azpikontratisten izena edo enpresa-profila, kaudimen profe-sional edo teknikoko baldintzen arabera, zehaztua. Betebehar hori funtsezko kontratu- betebeharra izango da SPKLren 211.1.f) artikuluaren ondorioetarako

7. Tal y como se indica en la cláusula 35.1.A.1. de este pliego. los licitadores deberán indicar en su oferta, si tienen previsto subcontratar los servidores o los servicios asociados a los mismos, el nombre o el perfil empresarial, definido por referencia a las condiciones de solvencia profesional o técnica, de los subcontratistas a los que se vaya a encomendar la realización. Esta obligación también tiene carácter de obligación contractual esencial a los efectos del artículo 211.1.f) de la LCSP.

8. Hirugarren batek datu pertsonalak tratatzen baditu kontratistaren kontura, hau da, tratamenduaren arduradunaren kontura, baldintza hauek bete beharko dira:

8. En el caso de que un tercero trate datos personales por cuenta del contratista, encargado del tratamiento, deberán de cumplirse los siguientes requisitos:

a) Tratamendu hori Udalak eta kontratistak sinatutako kontratuan zehaztea.

a) Que dicho tratamiento se haya especificado en el contrato firmado por el Ayuntamiento y el contratista.

b) Datu pertsonalen tratamendua bat etortzea tratamenduaren arduradunaren jarraibideekin.

b) Que el tratamiento de datos de carácter personal se ajuste a las instrucciones del responsable del tratamiento.

c) Tratamenduaz arduratzen den kontratistak eta hirugarrenak kontratua formalizatzea, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 12.2 artikuluan aurreikusitako moduan.

c) Que el contratista encargado del tratamiento y el tercero formalicen el contrato en los términos previstos en el artículo 12.2 de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre.

Kasu horietan, hirugarrena ere tratamenduaren arduraduntzat hartuko da.

En estos casos, el tercero tendrá también la consideración de encargado del tratamiento.

9. Kontratista tratamenduaren arduraduna denean, beharrezkoa izango da kontratuan edo dokumentu independente batean tratamendurako sarbide hori arautzeko behar diren klausulak sartzea, datu pertsonalak babesteari buruzko araudian aurreikusitako moduan eta edukiarekin, eta SPKLren 25. xedapen gehigarriarekin bat etorriz. Zehazki, datu hauek jasoko dira: tratamenduaren xedea, iraupena, izaera eta helburua, datu pertsonalen mota eta interesatuen kategoriak, eta arduradunaren betebeharrak eta eskubideak. Era berean, hirugarren bati datu pertsonalak kontratistaren kontura tratatzeko baimena ematen zaion ere jaso beharko da.

9. Cuando el contratista tenga la consideración de encargado del tratamiento, será necesario que en el contrato, o en un documento independiente, se incluyan las cláusulas precisas al objeto de regular dicho acceso, en los términos y con el contenido previstos en la normativa en materia de protección de datos de carácter personal, y de conformidad con la Disposición Adicional 25 de la LCSP. En particular, se harán constar el objeto, la duración, la naturaleza y la finalidad del tratamiento, el tipo de datos personales y categorías de interesados, y las obligaciones y derechos del responsable. Asimismo, se hará constar si se autoriza que un tercero trate los datos personales por cuenta del contratista.

10. Kontratua gauzatzeak berekin badakar kontratistak, tratamenduaren arduradunaren kontura, datu pertsonalak tratatzea, eta kontratuaren prestazioa amaitzen bada, izaera pertsonaleko datuak, baita datu horiek jasotzen dituen edozein euskarri edo dokumentu ere, suntsitu edo erakunde kontratatzaile arduradunari edo hark izendatutako tratamenduaren arduradunari itzuli beharko zaizkio.

10. Cuando la ejecución del contrato haya implicado el tratamiento de datos personales por parte del contratista y por cuenta del responsable del tratamiento y finalice la prestación contractual, los datos de carácter personal, así como cualquier soporte o documento en que consten, deberán ser destruidos o devueltos a la entidad contratante responsable, o al encargado de tratamiento que esta hubiese designado.

11. Tratamenduaz arduratzen den hirugarrenak behar bezala blokeatuta gordeko ditu datuak, tratamenduaren ardura duen erakundearekin duen harremanaren erantzukizunak erator daitezkeen bitartean.

11. El tercero encargado del tratamiento conservará debidamente bloqueados los datos en tanto pudieran derivarse responsabilidades de su relación con la entidad responsable del tratamiento.

12. Kontratua gauzatzeko kontratistak datu pertsonalen tratamendurik behar ez badu, kontratistak ez du baimenik izango ustekabean edo modu osagarrian ezagutzen dituen datu pertsonalen edo datu pertsonalen multzoaren gaineko operaziorik egiteko, eta ez du baimenik gabeko datu pertsonalen tratamendurik egingo. Kontratua exekutatu bitartean, datu pertsonaletara irispidea izanez gero, kontratistak eta haren langileek sekretu profesionala gorde beharko dute datu horiei dagokienez, eta informazio hori ezin izango dute erabili zerbitzua ematearen ondoriozkoa ez den beste helburu baterako.

12. En el caso de que la ejecución del contrato no implique el tratamiento de datos personales por parte del contratista, éste no estará autorizado a realizar ninguna operación sobre datos personales o conjunto de datos personales de los que tenga conocimiento de forma accidental o accesoria, y se abstendrá de realizar cualquier tratamiento de datos personales no autorizado. En el caso de que, durante la ejecución del contrato, tenga acceso a datos personales, el contratista y su personal estarán obligados a guardar secreto profe-sional respecto de los mismos y no podrán utilizar dicha información para ninguna finalidad distinta a la derivada de la prestación del servicio.

28. SPKLREN 129. ARTIKULUKO INFORMA-ZIOA

Fiskalitateari buruzko betebeharrei buruzko informazioa

- Irurako Udala
www.irura.eus
Kontuhartzailetza, Tel.: 943 691 333

- Gipuzkoako Foru Aldundia
www.gipuzkoa.eus/es/web/ogasuna Ogasun eta Finantza Saila
Tel.: 943 113 000

- Zerga Administrazioko Estatu Agentzia
www.agenciatributaria.es Oinarrizko zerga-informazioa Tel.: 901 335 533 / 915 548 770

Ingurumena babesteko betebeharrei buruzko informazioa

- Irurako Udala
www.irura.eus
Hirigintza, Obra eta Ingurumen Saila Tel.: 943 691 333

- Eusko Jaurlaritza
www.euskadi.eus/gobierno-vasco/medio-ambiente/
Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Saila
Tel.: 012

- Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa
www.ihobe.eus
Tel.: 944 230 743

Informazioa, enplegua babesteari, lan- baldintzei eta lan-arriskuen prebentzioari, desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzeari eta laneratzeari, eta desgaitasuna duten pertsonen kopuru edo ehuneko espezifiko bat kontratatzeko betebeharrari buruz indarrean dauden xedapenen gainekoa.

- Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Era-kundea (OSALAN) www.osalan.euskadi.eus
Zerbitzu zentralak Tel.:
944 032 190

- Eusko Jaurlaritza
www.euskadi.eus/gobierno-vasco/trabajo-seguridad-social

28. INFORMACIÓN DEL ARTÍCULO 129 DE LA LCSP

Información sobre las obligaciones relativas a la fiscalidad

- Ayuntamiento de Irura
www.irura.eus
Dep. Intervención, Tel.: 943 691 333

- Diputación Foral de Gipuzkoa
www.gipuzkoa.eus/es/web/ogasuna
Departamento de Hacienda y Finanzas
Tel.: 943 113 000

- Agencia Estatal de la Administración Tributaria
www.agenciatributaria.es Información tributaria básica Tel.: 901 335 533 / 915 548 770

Información sobre las obligaciones relativas a la protección del medio ambiente

- Ayuntamiento de Irura
www.irura.eus
Departamento de Urbanismo, Obras y Medio Ambiente
Tel.: 943 691 333

- Gobierno Vasco www.euskadi.eus/gobierno-vasco/medio- ambiente/
Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente
Tel.: 012

- Sociedad Pública de Gestión Ambiental del Gobierno Vasco
www.ihobe.eus Tel.:
944 230 743

Información sobre las disposiciones vigentes en materia de protección del empleo, condiciones de trabajo y pre-vención de riesgos laborales e inserción sociolaboral de las personas con discapacidad, y a la obligación de contratar a un número o porcentaje específico de personas con discapacidad.

- Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales (OSALAN) www.osalan.euskadi.eus
Servicios centrales
Tel.: 944 032 190

- Gobierno Vasco www.euskadi.eus/gobierno-vasco/trabajo- seguridad-social
Departamento de Trabajo y Empleo

Lan eta Enplegu Saila Tel.:
012

- Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioa
www.mites.gob.es
Lan Zuzendaritza Nagusia Tel.:
913 631 801

Genero-berdintasunaren arloan indarrean dauden xeda-penei buruzko informazioa

- Emakumearen Euskal Erakundea (Emakunde)
www.emakunde.euskadi.eus Tel.:
945 016 700

- Berdintasun Ministerioa
www.igualdad.gob.es Tel.:
915 243 200

Hizkuntza-berdintasunaren arloan indarrean dauden xedapenei buruzko informazioa

- Irurako Udala
www.irura.eus

- Euskara Saila
Tel.: 943 691 333

- Eusko Jaurlaritza
www.euskadi.eus/gobierno-vasco/departamento-cultura-politica-linguistica/
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila Tel.: 012

Datu pertsonalen babesaren arloan indarrean dauden xedapenei buruzko informazioa

- Datuak Babesteko Euskal Bulegoa
www.avpd.euskadi.eus Tel.:
945 016 230

Tel.: 012

- Ministerio de Trabajo y Economía Social
www.mites.gob.es
Dirección General de Trabajo Tel.:
913 631 801

Información sobre las disposiciones vigentes en materia de igualdad de género

- Instituto Vasco de la Mujer (Emakunde)
www.emakunde.euskadi.eus Tel.:
945 016 700

- Ministerio de Igualdad
www.igualdad.gob.es Tel.:
915 243 200

Información sobre las disposiciones vigente en materia de igualdad lingüística

- Ayuntamiento de Irura
http://www.irura.eus/

- Departamento de Euskera
Tel.: 943 691 333

- Gobierno Vasco
www.euskadi.eus/gobierno-vasco/departamento-cultura-politica-linguistica/
Departamento de Cultura y Política Lingüística
Tel.: 012

Información sobre las disposiciones vigente en materia de protección de datos de carácter personal

- Agencia Vasca de Protección de Datos (AVPD)
www.avpd.euskadi.eus
Tel.: 945 016 230

29. LAN-KONTRATUETAN SUBROGATZEKO BALDINTZEI BURUZKO INFORMAZIOA

Karatularen **22. paragrafoan** adierazitakoaren arabera, lan-kontratuetan subrogatzeko betebeharra badago, subrogazioak eragiten dien langileen kontratuen baldintzei

29. INFORMACIÓN SOBRE LAS CONDICIONES DE SUBROGACIÓN EN CONTRATOS DE TRABAJO

En el caso de que, según el **apartado 22** de la carátula, exista la obligación de subrogación en contratos de trabajo, la información sobre las condiciones de los

buruzko informazioa, neurri horrek eragingo dituen lan-kostuen ebaluazio zehatza ahalbidetzeko beharrezkoa dena, PTPAren dagokion eranskinean emango da, SPKLren 130. artikuluan aurreikusitakoa betez.

contratos de los trabajadores a los que afecte la subrogación que resulte necesaria para permitir una exacta evaluación de los costes laborales que implicará tal medida se facilitará en el anexo correspondiente del PPTP, en cumplimiento de lo previsto en el artículo 130 LSCP

II. KAPITULUA. KONTRATUAREN ADJUDIKAZIOA

CAPÍTULO II. ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO

30. ADJUDIKATZEKO PROZEDURA ETA TRAMITAZIO MOTA

30. PROCEDIMIENTO DE ADJUDICACIÓN Y TIPO DE TRAMITACIÓN

1. Kontratu hau prozedura ireki bidez adjudikatuko da, SPKLren 156.etik 158.era bitarteko artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

1. La adjudicación del presente contrato se llevará a cabo por el procedimiento abierto, de acuerdo con lo previsto en los artículos 156 a 158 de la LCSP.

2. Espedientearen tramitazioa arrunta edo presazkoa izango da, karatulako **goiburuan** adierazitakoaren arabera. Tramitazioa presazkoa denean, erdira murriztuko dira lizitatzeko, adjudikatzeko eta kontratua formalizatzeko epeak, salbuespen jakin batzuetan izan ezik, SPKLren 119. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. La tramitación del expediente será ordinaria o urgente, según lo indicado en el **encabezado** de la carátula. Cuando la tramitación utilizada sea de urgencia, los plazos para la licitación, adjudicación y formalzación del contrato se reducirán a la mitad, salvo determinadas excepciones, de conformidad con lo establecido en el artículo 119 de la LCSP.

3. Karatulako **12. atalak** kontratazioan dauden faseak ezarriko ditu, hala badagokio, baita fase bakoitzean erabili beharreko adjudikazio-irizpideak ere. Kasu horietan, proposamenak ezarritako balorazio fase bakoitzeko gutun-azal edo artxibo elektroniko indibidualizatuak izan beharko ditu.

3. El **apartado 12** de la carátula establecerá, en su caso, las diferentes fases existentes en la contratación, así como los criterios de adjudicación a utilizar en cada una de ellas. En estos casos, la proposición deberá incluir tantos sobres o archivos electrónicos individualizados como fases de valoración se hayan establecido.

31. KONTRATUAREN PUBLIZITATEA

31. PUBLICIDAD DEL CONTRATO

1. Kontratua adjudikatzeko lizitazio- iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratuko da, eta karatulako **goiburuan** adierazitako helbide elektronikoan kontsultatu ahalko da.

1. El anuncio de licitación para la adjudicación del contrato se publicará en el perfil de contratante, y podrá ser consultado en la dirección electrónica que se indica en el encabezado de la carátula.

2. Kontratua, karatulako **goiburuan** xedatutakoaren arabera, arau harmonizatupekoa denean, lizitazioa, gainera, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratuko da.

2. Cuando el contrato, según lo dispuesto en el **encabezado** de la carátula, esté sujeto a regulación armonizada, la licitación se publicará, además, en el Diario Oficial de la Unión Europea.

3. Lizitazio hau bitarteko elektronikoen bidez tramitatuko da, SPKLan xedatutakoari jarraituz.

3. La presente licitación se tramitará por medios electrónicos, de conformidad con las disposiciones de la LCSP.

Espediente honi dagozkion jakinarazpenak eta komunikazioak, oro har, elektronikoki eta Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataformaren bidez soilik egingo dira.

Las notificaciones y comunicaciones referidas a la presente contratación se realizarán, con carácter general, por medios exclusivamente electrónicos y a través de la Plataforma de Contratación Pública de Euskadi.

Horretarako, lizitatzaileek jakinarazpen elektronikoak egiteko gaitutako helbide elektronikoa adierazi beharko dute agiri honetako I. Eranskinean. Lizitatzaileek prozeduraren edozein unetan jakinarazi ahalko dute helbide hori aldatu dela.

A estos efectos, los licitadores deberán indicar en Anexo I de este pliego la dirección de correo electrónico habilitada en la que efectuar las notificaciones electrónicas. Los licitadores podrán comunicar la modificación de dicha dirección en cualquier momento del procedimiento

32. PROPOSAMENEN AURKEZPENA ETA HORREN ONDORIOAK

32. PRESENTACIÓN DE LAS PROPOSICIONES Y SUS EFECTOS

1. Proposamenak karatulako **goiburuan** eta **11. atalean** adierazitako moduan, epean eta tokian aurkeztuko dira. Proposamenak aurkezteko epemugarik izan ezean, epea kontatuko da lizitazio-iragarkia kontratatzailearen profilean edo Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Adierazitako eguna larunbata edo jaieguna bada, epea hurrengo egun baliodunerainо luzatuko da.

1. Las proposiciones se presentarán en la forma, plazo y lugar señalados en el **encabezado** y en el **apartado 11** de la carátula. A falta de fecha límite de presentación de las proposiciones, el plazo se contará desde el día siguiente a la publicación en el perfil de contratante del anuncio de licitación, o en el Diario Oficial de la Unión Europea para los contratos sujetos a regulación armonizada. Si el día indicado fuera sábado o festivo, se estará al primer día hábil siguiente.

2. Lizitazio elektroniko partzialaren edo lizitazio ez-elektronikoaren kasuan, proposamenak postaz bidaltzen direnean, posta bulegotik bidalitako data justifikatu beharko da, eta kontratazio-organoari jakinarazi beharko zaio eskaintza bidalitako egun berean. Bi baldintza horiek bete ezean, eskaintzak bidaltzeko epea eta ordua ondoren jasotakoak ez ditu onartuko kontratazio-organoak. Nolanahi ere, egun horretatik HAMAR (10) EGUN NATURAL igaro ondoren dokumentazioa jaso ez bada, ez da inola ere onartuko.

2. En caso de licitación electrónica parcial o licitación no electrónica, cuando la presentación de las proposiciones se envíe por correo, se deberá justificar la fecha de imposición del envío en la oficina de Correos y anunciar al órgano de contratación la remisión de la oferta en el mismo día. Sin la concurrencia de ambos requisitos no será admitida la documentación si es recibida por el órgano de contratación con posterioridad a la fecha y hora de terminación del plazo. Transcurridos, no obstante, DIEZ (10) DÍAS NATURALES siguientes a la indicada fecha sin haberse recibido la documentación, ésta no será admitida en ningún caso.

3. Lizitatzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du, aldaeren onargarritasunari buruz karatulako **3. atalean** kontrakoa xedatu ezean. Era berean, ezingo du inolako proposamenik izenpetu ABEEn beste enpresaburu batzuekin, baldin eta ba-naka egin badu edo ABEE batean baino gehiagotan agertzen bada. Arau horiek hautsiz gero, ez dira onar-tuko hark izenpetutako proposamen guztiak.

3. Cada licitador no podrá presentar más de una proposición, sin perjuicio de lo dispuesto en el **apartado 3** de la carátula sobre la admisibilidad de variantes. Tampoco podrá suscribir ninguna proposición en UTE con otros empresarios si lo ha hecho individualmente o figura en más de una UTE. La infracción de estas normas dará lugar a la no admisión de todas las proposiciones por él suscritas.

4. Interesatuek kontratuaren xede diren ondasun edo produktu guztiei edo horiek aurkezten diren sortari edo sortei buruzko eskaintzak aurkeztu beharko dituzte.

4. Los interesados habrán de presentar sus ofertas referidas al a totalidad de los bienes o productos objeto del contrato o del lote o lotes a los que se presenten.

5. Proposamena entregatu edo bidali ondoren, ezingo da erretiratu HAMABOST (15) EGUN NATURALEKO epean, proposamenak irekitzen direnetik kontatzen hasita, adjudikazioduna hautatzeko irizpide bakarra pre-zioa denena, edo BI (2) HILABETEKO epean, kontratua adjudikatzeko hainbat irizpide kontuan hartu direnean. Epe hori HAMABOST (15) EGUN BALIODUNEZ luzatuko da, anormaltasun-presuntzioan dauden eskaintzak identifikatzeko tramiteak egin behar direnean.

5. Una vez entregada o remitida la proposición, no podrá ser retirada durante el plazo de QUINCE (15) DÍAS NATURALES, a contar desde la apertura de las proposiciones, cuando el único criterio para seleccionar al adjudicatario sea el del precio, o durante el plazo de DOS (2) MESES, cuando para la adjudicación del contrato se hayan tenido en cuenta una pluralidad de criterios. Dicho plazo quedará ampliado en QUINCE (15) DÍAS HÁBILES cuando sea necesario seguir los trámites para identificar las ofertas que se encuentran incursas en presunción de anormalidad.

7. Proposamenak modu ez elektronikoan aurkezten direnean, behin kontratua adjudikatuta eta helegiteak jartzeko epeak igarota, adjudikaziodun izan ez diren lizitatzaileen dokumentazio orokorra kontratazio-organoaren bulegoetan jarriko da eskuragarri. Dokumentazioa SEI (6) HILABETEKO epean jasotzen ez bada, ulertuko da interesatuak hari uko egin diola eta, beraz, kontratazio-organoak dokumentazioa suntsitu ahalko du.

7. En el caso de que las proposiciones se presenten por medios no electrónicos, una vez adjudicado el contrato y transcurridos los plazos para la interposición de recursos, la documentación general de los licitadores que no hayan resultado adjudicatarios quedará a su disposición en las oficinas del órgano de contratación. En el caso de que la documentación no sea retirada en el plazo de SEIS (6) MESES, se entenderá que el interesado ha renunciado a ella y el órgano de contratación quedará facultado para destruirla.

33. INTERESATUEI INFORMAZIOA EMATEA

33. INFORMACIÓN A INTERESADOS

1. Udalak, lizitazio-prozeduran interesatuak diren guztiei baldintza-agiriei eta eskatzen dituzten gainerako agiri osagarriei buruzko informazio gehigarria emango die. Informazio hori eskaintzak aurkezteko epea amaitu baino SEI (6) EGUN lehenago emango zaie, beranduenez, baldin eta gutxienez HAMABI (12) EGUN lehenago eskatu badute eta karatulako **11. atalean** beste epe bat ezartzen ez bada.

1. El Ayuntamiento proporcionará a todos los interesados en el procedimiento de licitación, a más tardar SEIS (6) DÍAS antes de que finalice el plazo fijado para la presentación de ofertas, aquella información adicional sobre los pliegos y demás documentación complementaria que éstos soliciten, a condición de que la hubieren pedido al menos DOCE (12) DÍAS antes del transcurso del plazo de presentación de las proposiciones o de las solicitudes de participación, salvo que el **apartado 11** de la carátula estableciera otro plazo distinto.

3. Kontratatzailearen profilean argitaratzen diren argibideei emandako erantzunak lotesleak izango dira.

3. Las respuestas a las aclaraciones que se hagan públicas en el perfil de contratante tendrán carácter vinculante.

34. PROPOSAMENEN EDUKIA

34. CONTENIDO DE LAS PROPOSICIONES

1. Proposamenak bi edo hiru artxibo elektronikotan ed ogutun-azaletan aurkeztuko dira, adjudikazio-irizpideen eta ebaluazio moduaren arabera, hurrengo klausuletan jasotako arauen arabera.

1. Las proposiciones constarán de dos o tres archivos electrónicos o sobres, en función de los criterios de adjudicación y su forma de evaluación, de conformidad con las reglas contenidas en las cláusulas siguientes.

2. Artxibo elektronikoak edo gutun-azalak itxita eta lizitatzaileak edo haren ordezkariak sinatuta aurkeztuko dira. ABEE bat edo enpresa talde bat bada, enpresa bakoitzaren datuak adieraziko dira, eta artxibo elektronikoak edo gutun-azalak elkarteko enpresa bakoitzaren ordezkariek sinatu beharko dituzte.

2. Los archivos electrónicos o sobres se presentarán cerrados y firmados por el licitador o persona que lo represente. Si se trata de una UTE o una agrupación de empresas, se indicarán los datos de cada uno de los empresarios, debiendo los archivos electrónicos o sobres ir firmados por los representantes de cada una de las empresas integrantes de la unión o agrupación.

Elektronikoki aurkezten badira, sinadura elektronikoa izango da, eta artxibo elektronikoa automatikoki itxiko da.

En el caso de que se presenten por medios electrónicos, la firma será electrónica y el archivo electrónico quedará automáticamente cerrado.

Modu ez-elektronikoan aurkeztuz gero, gutun-azalak itxita egon beharko dira, eta kanpoaldean identifikatuta, honako hauek adierazita: lizitazioa, enpresa lizitatzailearen izen-abizenak edo izen soziala, IFZ, ordezkariaren izen-abizenak, telefono-zenbakiak eta fax-zenbakiak, eta helbide elektronikoa, halakorik izanez gero.

En el caso de que se presenten por medios no electrónicos, los sobres deberán estar cerrados y deberán estar identificados en su exterior con indicación de la licitación a la que se concurra, el nombre y apellidos o razón social de la empresa licitadora, el NIF, el nombre y los apellidos del representante, en su caso, los números de teléfono y de fax, y la dirección de correo electrónico, de disponer de ellos.

Era berean, bitarteko ez-elektronikoen bidez aurkeztutako gutunazal bakoitzaren barruan, aparteko orri batean jasoko da haren edukia, zenbakizko aurkibide batean ordenatuta.

Asimismo, en el interior de cada sobre presentado por medios no electrónicos se hará constar en hoja independiente su contenido, ordenado en un índice numérico.

3. Lizitatzaileei ez zaie eskatuko jatorrizko agiriak aurkezteko, behin-behineko bermea egiaztatzen duen agiria izan ezik, zeina, lizitazio ez-elektronikoaren kasuan, jatorrizkoa izan beharko baita. Salbuespen gisa, dokumentuak prozeduran duen garrantziak hala eskatzen duenean edo kopiaren kalitateak zalantzak sortzen dituenean, aurkeztutako kopiak alderatzeko eskatu ahal izango du Udalak, arrazoituz, eta, horretarako, jatorrizko dokumentua edo informazioa erakusteko eskatu ahal izango du.

3. No se exigirá a los licitadores la presentación de documentos originales, salvo el documento acreditativo de la garantía provisional que, en el supuesto de licitación no electrónica, habrá de ser el original. Excepcionalmente, cuando la relevancia del documento en el procedimiento lo exija o existan dudas derivadas de la calidad de la copia, el Ayuntamiento podrá solicitar de manera motivada el cotejo de las copias aportadas, para lo que podrá requerir la exhibición del documento o de la información original.

4. Eskaintzarekin batera doan dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz idatzita aurkeztu beharko da, edo bi hizkuntza horietako batera egindako itzulpen ofizialarekin betera.

4. La documentación que acompaña la oferta deberá presentarse redactada en euskera o en castellano, o acompañarse de traducción oficial a uno ellos.

35. "A" ARTXIBO ELEKTRONIKOA EDO GUTUN-AZALA: AURRETIKO BETEKIZUNAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEN DUEN DOKUMENTAZIOA

35. ARCHIVO ELECTRÓNICO O SOBRE "A": DOCUMENTACIÓN ACREDITATIVA DEL CUMPLIMIENTO DE LOS REQUISITOS PREVIOS

1. Artxibo elektroniko edo gutun-azal honetan, honako agiri hauek sartuko dira:

1. Dentro de este archivo electrónico o sobre se incluirá la siguiente documentación:

A.1. Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB)

A.1. Documento Europeo Único de Contratación (DEUC)

IX. eranskinean jasotako jarraibideen arabera beteko da, lizitatzaileak edo haren ordezkariak sinatuta eta dagokion identifikazioarekin.

Se cumplimentará conforme a las indicaciones incluidas en el **Anexo IX**, firmado por la licitadora o su representante y con la correspondiente identificación.

Enpresa lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimena eta baliabideak erabiltzen baditu, EKAB bat aurkeztu beharko du horietako bakoitzeko.

Cuando la empresa licitadora recurra a la solvencia y medios de otras entidades, deberá presentarse un DEUC por cada una de ellas.

Karatulako **22. atalean** hala adierazten bada, EKAB agirian azpikontratatu nahi den kontratuaren zatia adierazi beharko da, zenbatekoa eta azpikontratisten izena edo enpresa-profila adierazita.

Cuando en el **apartado 22** de la carátula así se indique, se deberá indicar en el DEUC la parte del contrato prevista subcontratar, indicando su importe y el nombre o perfil empresarial de las subcontratistas.

Karatulako **17. atalean** adierazitakoaren arabera, kontratistak tratamenduaren arduradunaren kontura datu pertsonalak tratatzea eskatzen duten kontratuetan, lizitatzaileak EKAB agirian adierazi beharko du zerbitza-riak edo horiei lotutako zerbitzuak azpikontratatzeko asmoa duen, baita zerbitzari edo zerbitzu horiek eramateko ardura emango zaien azpikontratisten izena edo enpresa-profila ere, kaudimen profesional edo teknikoaren baldintzen arabera zehaztuta.

En aquellos contratos cuya ejecución, según se indique en el **apartado 17** de la carátula, requiera el tratamiento por el contratista de datos personales por cuenta del responsable del tratamiento, el licitador deberá indicar en el DEUC si tiene previsto subcontratar los servidores o los servicios asociados a los mismos, el nombre o el perfil empresarial, definido por referencia a las condiciones de solvencia profesional o técnica, de los subcontratistas a los que se vaya a encomendar su realización. Esta obligación tiene

Betebehar hori funtsezko kontratu-betebeharra izango da SPKL-ren 211.1.f) artikuluaren ondorioetarako.

carácter de obligación contractual esencial a los efectos del artículo 211.1.f) de la LCSP.

A.2. I. Eranskina. Jakinarazpenak eta komunikazioak egiteko datuak. Helbide horretan egindako jakinarazpenak eta komunikazioak baliozkotzat joko dira.

A.2. Anexo I. Datos a efectos de realizar notificaciones y comunicaciones. Las notificaciones y comunicaciones realizadas a dicha dirección se considerarán válidas.

A.3. II. Eranskina. Lanaren, gizartearen eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorraren arloan indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak betetzeari buruzko erantzukizunpeko deklarazioa.

A.3. Anexo II. Declaración responsable sobre el cumplimiento de las obligaciones establecidas en la normativa vigente en materia laboral, social y de igualdad efectiva entre mujeres y hombres.

A.4. III. Eranskina. Hala badagokio, **kontratua gauzatzeko giza baliabideak eta baliabide materialak atxikitzeko erantzukizunpeko deklarazioa**, karatulako **4. atalean** adierazitako profil eta zehaztapenekin.

A.4. Anexo III. En su caso, **declaración responsable de adscripción a la ejecución del contrato de los medios personales y materiales**, con los perfiles y especificaciones que se indican en el **apartado 4** de la carátula.

A.5. IV. Eranskina. Hala badagokio, **ABEEa era-tzeko konpromisoa.**

ABEEan parte hartzen duten operadore ekonomikoen kasuan, dokumentu pribatu bat aurkeztu beharko dute, IV. eranskinean jasotako ereduaren arabera. Dokumentu horretan, honako hauek adieraziko dira: sinatzen duten enpresen izenak eta inguruabarrak, enpresa horietako bakoitzaren partaidetza, eta, adjudikaziodun izanez gero, ABEE formalki eratzeko konpromisoa hartzen dutela.

A.5. Anexo IV. En su caso, **compromiso de constitución de UTE.**

En el caso de operadores económicos que concurran en UTE, deberán aportar un documento privado, conforme al modelo recogido en el Anexo IV, en el que se indiquen los nombres y circunstancias de las empresas que la suscriban, la participación de cada una de ellas, así como que asumen el compromiso de constituirse formalmente en UTE, caso de resultar adjudicatarias. El citado documento deberá estar firmado por quienes tengan la representación de cada una de las empresas componentes de la UTE.

Agiri hori ABEEa osatzen duten enpresa bakoitzaren ordezkariek sinatu beharko dute.

Además, cada uno de los integrantes aportará el DEUC del apartado A.1.

A.6. V. Eranskina. Hala badagokio, **enpresa lizita-tzailearen berariazko erantzukizunpeko deklarazioa**, bere enpresa-taldeari buruzkoa eta talde bereko sozietate guztiei buruzkoa.

A.6. Anexo V. En su caso, **declaración expresa responsable de la empresa licitadora relativa al grupo empresarial** al que pertenece y comprensiva de todas las sociedades pertenecientes a un mismo grupo.

Talde bereko enpresek aurkeztu beharko dute, hau da, Merkataritza Kodearen 42. artikuluko kasuren batean daudenek eta adjudikaziora banaka aurkezteko proposamen bat baino gehiago aurkezten dutenek.

Deberá presentarla las empresas pertenecientes a un mismo grupo, entendiéndose por tales las que se encuentren en alguno de los supuestos del artículo 42 del Código de Comercio, y que presenten distintas proposiciones para concurrir individualmente a la adjudicación.

A.7. VI. Eranskina. Hala badagokio, **lizitatzailearen dokumentu eta datu konfidentzialen deklarazioa.**

Lizitatzaileek adierazi beharko dute zer dokumentu (edo dokumentu zatiak) edo eskaintzetan sartutako zer datu diren konfidentzialak, behar bezala justifikatuta, eta ez dira onargarriak izango eskaintzaren dokumentu edo datu guztien konfidentzialtasun-deklarazio orokorrak. Modu ezelektronikoan aurkeztutako proposa-menen kasuan, gainera, konfidentzialtasun hori argi eta garbi jaso beharko da (gaininprimatuta, bazterrean edo beste edozein modutan) hala adierazitako dokumentuan bertan. Lizitatzaileek berariaz konfidentzialtzat jo ez dituzten dokumentuak ez dira konfidentzialzat joko.

A.7. Anexo VI. En su caso, **declaración de los documentos y datos de las licitadoras de carácter confidencial.**

Los licitadores deberán indicar qué documentos (o parte de los mismos) o datos de los incluidos en las ofertas tienen la consideración de confidenciales, justificándolo adecuadamente, sin que resulten admisibles las declaraciones genéricas de confidencialidad de todos los documentos o datos de la oferta. En el caso de proposiciones presentadas por medios no electrónicos, esta circunstancia deberá, además, reflejarse claramente (sobreimpresa, al margen o de cualquier otra forma) en el propio documento señalado como tal. No se considerarán confidenciales documentos que no hayan sido expresamente calificados como tales por los licitadores.

A.8. Hala badagokio, **behin-behineko bermea eratu izanaren egiaztagiria,** agiri hauen 24. klausularen arabera.

A.8. En su caso, **documento acreditativo de haber constituido la garantía provisional** de conformidad con la cláusula 24 del presente pliego.

A.9. Atzerriko lizitatzaileek aurkeztu beharreko dokumentazioaren berezitasunak.

- **Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla adierazten duen deklarazioa,** kontratutik zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako, eta, hala badagokio, legokiekeen atzerriko foruari uko egiten diotela adierazten duena.

A.9. Especialidades en la documentación a presentar por las licitadoras extranjeras.

- Declaración de someterse a la jurisdicción de los Juzgados y Tribunales Españoles de cualquier orden, para todas las incidencias que de modo directo o indirecto pudieran surgir del contrato, con renuncia, en su caso, al fuero jurisdiccional extranjero que pudiera corresponder al licitante.

Gainera, Europar Batasuneko kide ez diren edo Europako Esparru Bakarrari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako enpresek honako hauek aurkeztu beharkodituzte:

Además, las empresas de Estados que no sean miembros de la Unión Europea o signatarios del Acuerdo sobre el Espacio Único Europeo deberán aportar:

- **Enpresaren egoitzako Espainiako Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorrak edo Bulego Kontsularrak egindako txostena,** enpresak egiaztatu ondoren tokiko erregistro profesional, komertzial edo analo-goan inskribatuta dagoela edo, halakorik ezean, kontratuaren xede den jardueraren esparruan tokiko trafikoan ohikotasunez jarduten duela adierazten duena.

- **Informe expedido por la Misión Diplomática Permanente u Oficina Consular de España del lugar del domicilio de la empresa**, en que se haga constar, previa acreditación por la empresa, que figura inscrita en el registro local profesional, comercial o análogo o, en su defecto, que actúa con habitualidad en el tráfico local en el ámbito de las actividades a la que se extiende el objeto del contrato.

- SPKLren 68. artikuluan aipatzen den **elkarrekikotasun txostena**, erregulazio harmonizatuko kontratuak direnean izan ezik; kasu horretan, **Munduko Merkataritza Erakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa sinatu duen estatuaren izaerari buruzko Ekonomia Ministerioaren Kanpo Merka- taritzako Idazkaritza Nagusiaren edo Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorraren txosten** batekin ordezkatuko da. Kasu horretan, enpresa adjudikaziodunak sukurtsala ireki beharko du Espainian, eta ahalordedunak eta ordezkariak izendatu beharko ditu bere operazioetarako, eta Merkataritza Erregistroan inskribatu beharko dira.

- Informe de reciprocidad a que se refiere el artículo 68 de la LCSP, salvo que se trate de contratos sujetos a regulación armonizada, en cuyo caso se sustituirá por un **informe de la Misión Diplomática Permanente o de la Secretaría General de Comercio Exterior del Ministerio de Economía sobre la condición de Estado signatario del Acuerdo sobre Contratación Pública de la Organización Mundial de Comercio.** En este caso, la empresa adjudicataria deberá abrir sucursal en España con designación de apoderados y representantes para sus operaciones, y deberán inscribirse en el Registro Mercantil.

A.10. VII. Eranskina. Langileei aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboaren deklarazioa.

A.10. Anexo VII. Declaración del Convenio Colectivo a aplicar a los trabajadores.

2. Kontratazio-organoak edo mahaiak, kontratua adjudikatu aurretik edozein unetan, eskatu ahalko du erantzukizunez bete direla deklaratzen duten baldintzak betetzen direla egiaztatzeko agiriak. Lizitatzaileek behar besteko epean aurkeztu beharko dute eskatutako dokumentazioa. Epe hori ezingo da BOST (5) EGUN BALIODUNETIK gorakoa izan, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Errekerimendua adierazitako epean behar bezala betetzen ez bada, lizitatzaileak eskaintza erretiratu duela ulertuko da, eta prozeduratik kanpo geratuko da.

2. El órgano o la mesa de contratación podrán pedir, en cualquier momento antes de la adjudicación del contrato, la justificación documental del cumplimiento de las condiciones sobre las que hubieran declarado responsablemente su cumplimiento. Las licitadoras deberán presentar la documentación requerida en un plazo suficiente, que no podrá ser superior a CINCO (5) DÍAS HÁBILES, a contar desde el día siguiente al de la recepción del requerimiento. De no cumplimentarse adecuadamente el requerimiento en el plazo señalado, se entenderá que la licitadora ha retirado su oferta, y será excluida del procedimiento.

36. “B” ARTXIBO ELEKTRONIKOA EDO GUTUN-AZALA: BALIO-JUDIZIOAREN BIDEZ BALORATU BEHARREKO DOKUMENTA-ZIOA

1. Karatulako **12. atalean** balio-judizioaren bidez baloratu beharreko adjudikazio- irizpideak sartu badira, lizitatzaileak “B” artxibo elektronikoa edo gutun-azala aurkeztu beharko du, eta bertan atal horretan eskatutako dokumentazioa jaso beharko du.

2. Ez da inola ere sartuko artxibo elektroniko edo gutun-azal honetan “C” artxibo elektronikoari edo gutun-azalari dagozkion dokumentazioa. Agindu hori hautsiz gero, lizitatzailea baztertuko da.

4. Era berean, lizitatzaileak proiektuan berariaz adierazten den beste edozein dokumentu aurkeztu beharko du, eskaintzak eskatutako zehaztapen teknikoak betetzen dituela egiaztatzeko balio dutenak, baina baloratuko ez direnak. Dokumentu horiek “B” artxibo elektronikoan edo gutun-azalean sartuko dira, hura aurkeztea nahitaezkoa denena, edo, bestela, “C” artxibo elektronikoan.

36. ARCHIVO ELECTRÓNICO O SOBRE “B”: DOCUMENTACIÓN A VALORAR MEDIANTE JUICIO DE VALOR”

1. Si en el **apartado 12** de la carátula se han incluido criterios de adjudicación a valorar mediante juicio de valor, la licitadora deberá aportar un archivo electrónico o sobre “B”, en el que se incluya la documentación exigida en dicho apartado

2. En ningún caso deberán incluirse en este archivo electrónico o sobre documentos propios del sobre o archivo electrónico “C”. La infracción de este mandato dará lugar a la exclusión del licitador.

4. Asimismo, la licitadora deberá presentar cualesquiera otros documentos que, en su caso, se indiquen expresamente en el proyecto y que permitan verificar que la oferta cumple con las especificaciones técnicas requeridas, pero que no van a ser objeto de valoración. Se incluirán en el archivo electrónico o sobre “B” en el caso de que sea obligatoria la presentación de éste o, en caso contrario, en el archivo electrónico “C”.

37. “C” ARTXIBO ELEKTRONIKOA EDO GUTUN-AZALA: FORMULAK APLIKATUZ BA-LORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1. “C” Artxibo elektronikoan edo gutun- azalean, eskaintza ekonomikoa eta formulak aplikatu ebaluatu beharreko gainerako dokumentuak jaso beharko dira.

37. ARCHIVO ELECTRÓNICO O SOBRE “C”: DOCUMENTACIÓN A VALORAR MEDIANTE LA APLICACIÓN DE FÓRMULAS

1. En este archivo electrónico o sobre “C” se deberán incluir la oferta económica y el resto de documentos a evaluar mediante la aplicación de fórmulas.

2. Ez dira inola ere sartuko artxibo elektroniko edo gutun-azal honetan “B” artxibo elektronikoari edo gutun-azalari dagozkion dokumentuak. Dokumentu horiek sartzen badira, ez dira baloratuko.

2. En ningún caso deberán incluirse en este archivo electrónico o sobre documentos propios del sobre o archivo electrónico “B”. Su inclusión dará lugar a la no valoración de dicha documentación.

3. Proposamenak **VIII. eranskineko** ereduari egokitu beharko dira, eta ez dira onartuko omisio, akats eta zirriborroak dituztenak, baldin eta Udalak eskaintza aintzat hartzeko funtsezkotzat jotzen duena argi eta garbi ezagutzea eragozten badute.

3. Las proposiciones deberán ajustarse al modelo que figura en el **Anexo VIII**, no aceptándose aquellas que contengan omisiones, errores o tachaduras que impidan conocer claramente lo que el Ayuntamiento estime fundamental para considerar la oferta.

4. Lizitatzaileen eskaintza ekonomikoek partida independente gisa adierazi beharko dute jasanarazi beharreko BEZaren zenbatekoa.

4. Las ofertas económicas de las licitadoras deberán indicar, como partida independiente, el importe del IVA que deba ser repercutido.

5. Kopuruan adierazitako zenbatekoa eta letretan adierazitakoa ez badatoz bat, letretan adierazitakoa aurreikusiko da.

5. En caso de discrepancia entre el importe expresado en número y el importe expresado en letras, prevaldrá el expresado en letras.

38. ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

38. CRITERIOS DE ADJUDICACIÓN

1. Kontratua adjudikatzeko kontuan hartu beharreko irizpideak, baita horien ponderazioa ere, lizitazio-iragarkian eta karatulako **12. atalean** adierazitakoak izango dira, oinarrizko eskaintzari zein aldaerei edo hobekuntzei aplikagarriak.

1. Los criterios a tener en cuenta para la adjudicación del contrato, así como su ponderación, aplicables tanto a la oferta base como a las variantes o mejoras, en su caso, serán los establecidos en el anuncio de licitación y en el **apartado 12** de la carátula.

2. Atal berean adieraziko da, hala bada, balio-judizioaren bidez balioetsi beharreko irizpideen ebaluazioa adituen batzorde bati edo erakunde tekniko espezializatu jakin bati dagokion. Azken horrek behar bezala identifikatuta egon beharko du aipatutako atalean, eta kontratatzailearen profilean argitaratuta.

2. En el mismo apartado se indicará, en su caso, si la evaluación de los criterios a valorar mediante juicio de valor corresponde a un comité de personas expertas o a un organismo técnico especializado, debidamente identificado en el mencionado apartado, así como publicado en el perfil de contratante.

3. Adjudikazio-prozedura hainbat fasetan antolatzen bada, karatulako **11. atalean** adieraziko da zein fasetan aplikatuko diren irizpideak, baita lizitatzaileari hautaketa-prozesuan jarraitzeko eskatuko zaion gutxieneko puntuazioa ere.

3. En el caso de que el procedimiento de adjudicación se articule en varias fases, el **apartado 11** de la carátula indicará en cuáles de ellas se irán aplicando los distintos criterios, así como el umbral mínimo de puntuación exigido al licitador para continuar en el proceso selectivo.

Irurako udala

39. AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA IREKITZEA ETA PROZESATZEA, ENPRESAK AUKERATZEA, ETA ESKAINTZAK BALORATZEA

1. Eskaintzak aurkezteko epea bukatutakoan, espediente administratiboaz arduratzen den unitateak, behar izan daitezkeen teknikarien kolaborazioarekin, **"A" artxibo elektronikoaren edo gutun- azalaren** dokumentuak aztertuko ditu eta horiei buruzko txostena egingo dio kontratazio-mahaiari, dokumentu horiek kalifikatu ditzan.

